



## **Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko  
ikastetari buruzko dokumentuak

# **Bizitza osoan zehar ikasi eta ikasten duten pertsonak, 2008-2018**

**68. dokumentua**

**2020ko apirila**



**AURKIBIDEA**

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena.....	3
<b>2. Ikasten duten pertsona helduak eta horien ezaugarriak .....</b>	<b>5</b>
2.1. Ikasten duten helduak.....	5
2.2. Ikasten duten helduak, generoaren arabera.....	7
2.3. Ikasten duten pertsona helduak, adin taldeen arabera.....	9
2.4. Ikasten duten pertsona helduak, egindako ikasketa mailaren arabera .....	12
2.5. Ikasten duten pertsona helduak, ordaindutako lan-merkatuan parte-hartzearen arabera .....	15

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

### **Ikasmina: Gipuzkoan etengabeko ikaskuntza ezagutzea, sustatzea eta bultzatzea**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapena, Turismo Landa Inguruneko Departamentuaren helburua da Gipuzkoa ikasten duen lurraldea egitea, pertsonei eta gizarte-eragileei bizitza osoko ikaskuntzaren garrantzia nabarmenduta.

Bizitza osoko ikaskuntzaren kontzeptuak ikaskuntza mota guztiak biltzen ditu, prestakuntza arautuko etapa gainditu ostean hasten da eta ikasten duten helduei egiten die erreferentzia. Zehazkiago,

- Bizitza osoko ikaskuntzak<sup>1</sup> modu jarraituan gauzatutako ikaskuntza-jarduera eraginkor oro biltzen du; jarduera horien xedea pertsonen prestakuntza, ezagutzak eta gaitasunak hobetzea da, betiere, ikuspegi pertsonalarekin, hiritarrarekin, sozialarekin edo enpleguarekin lotutako ikuspegiarekin.
- Ikaskuntzaren kontzeptu horrek<sup>2</sup> biltzen ditu modalitate formala (arautua eta egiaztatzea lortzera bideratutakoa) eta ez-formala (izaera ez hain arautua eta titulazioaren konpromisorik gabe).

Hala, bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzeko tasa ikaskuntzako jardueretan (formala edota ez formala) pertsonen parte-hartzearen bi modalitateak kontuan hartuta osatzen da.

Dokumentu hau Gipuzkoan bizitza osoan helduen ikaskuntza-tasaren bilakaeran oinarritzen da eta pertsonen ezaugarriekin bat etorritik, esate baterako, generoa,

<sup>1</sup> Eurostaten metodologia.

<sup>2</sup> Ikaskuntza informalak bizitza osoko ikaskuntzaren edo etengabeko ikaskuntzaren ikuspegi orokorra osatzen du, baina ez da sartu ikaskuntza-tasaren zenbaketan. Iturria: Eurostat.

adina, lortutako ikasketa maila eta ordaindutako lan-merkatuan parte hartzea. Ikaskuntza-tasan hobekuntza adierazten laguntzen duten faktoreak adieraztea da helburua; hauek dira:

- Pertsonen ikasketa mailan izandako etengabeko hobekuntza: hori gertatu da, batez ere, adinez nagusiagoak diren eta ikasketa gutxiago dituzten belaunaldiak atera direlako, tarteko adin taldea (ikasketa maila zertxobait hobetu zuen lehen ere) finkatu delako eta belaunaldi gazteagoak, argi eta garbi prestakuntza gehiago jaso dutenak, sartu direlako.
- Lan merkatuan parte hartzen duen taldearen finkapena: emakumeek gero eta parte-hartze handiagoa dutelako (belaunaldiz belaunaldi), enpleguan hobekuntza orokorraren faktorearekin batera.
- Bi faktoreek ezaguna den gertaera konpentsatzen dute: Gipuzkoako biztanleriaren zahartzea, eta horrek, hasiera batean bizitza osoko ikaskuntzan gutxi parte hartzeko jarrera adierazten du.

Azken finean, dokumentu honetan bildutako emaitzekin bat etoriz, Gipuzkoako biztanleria helduak parte-hartze tasa pixkanaka hobetzen jarraituko du bizitza osoko ikaskuntzan, hiru joera hauetan oinarrituta:

- Pertsonak lan-jardueran parte hartze handiagoa edota ikaskuntza maila handiagoa duten neurrian, ikasteko ere jarrera handiagoa dute, motibazioa eta ikasteko gogoa sortzen duten faktore izan baitaitezke.
- Egoera honetan, ikaskuntza modu integralean hartzen da; izan ere, arrazoi profesionalei eta pertsonalei erantzuten die, eta ondorioz, ikaskuntza aisialdirako eta hazkunde pertsonalerako gune gisa har daitezke.
- Horrez gain, ikasteko gero eta erraztasun handiagoa dago, ikaskuntza malguen, birtualen eta orain arteko moduan derrigorrez aurrez aurrekoak eta ordutegietan zorrotzak ez diren modalitateen bultzadari esker.

## 2. Ikasten duten pertsona helduak eta horien ezaugarriak

### 2.1. Ikasten duten helduak

#### Gipuzkoan etengabe hobetu da ikasten duten pertsona helduen proportzioa

25 eta 74 urte arteko Gipuzkoako biztanleen % 39,6k adierazi zuen kontsulta-unetik hasita (2019ko otsailean izan zen), azken 12 hilabeteetan ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu zuela, formala eta/edo ez-formala, biak aintzat hartuta.


Beraz, esan genezake Gipuzkoako lau pertsona heldutik batek ikaskuntza-jardueretan parte hartu duela aurre-urreko unean, hau da, 2018an.

Atxikitako grafikoak erakusten duen moduan, hori nahiko proportzio egonkorra da azken hamarkadan, baina zertxobait gorantz doan profilarekin. Horrela:

- Lehen hiru urteetan (2008-2009-2010) lortutako tasa biztanleria helduaren % 36 inguruan dago, eta aztertutako aldia amaitzean (2017-2018) % 40 inguruan kokatzen da.
- Gipuzkoako pertsona helduen ikaskuntza-tasak ehuneko lau puntuko gorakada argia erregistratu du. Hori, jarraian ikusiko den moduan, Gipuzkoako gizartearen bilakaerak baldintzatzen du, pertsonen hezkuntza mailaren etengabeko hobekuntzarekin.

### 1. grafikoa Ikasten duten pertsonak Gipuzkoan, 2008-2018

Biztanleria helduaren gaineko %, 25-74 urte



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua

Azkenik, emaitzen aurkezpena errazteko,

- Emaitzak hiru urtetako batez besteko tarteetan aurkeztuko dira, arreta egoeraren araberrako uneetan zentratzea saihestuz, eta joera-aldaketan oinarrituz.
- Eta bitzita osoko ikaskuntzarekin lotutako emaitza multzo bakoitzerako, Eustatek emandako informazioa alderatuko da. Gipuzkoako biztanleria helduaren multzoa bereizten du aintzat hartutako ezaugarri soziodemografiko bakoitzerako.

## 2.2. Ikasten duten helduak, generoaren arabera

### Emakumeek eta gizonen ikaskuntzan parte-hartze tasa handitu dute

Gipuzkoako hamar emakume edo gizonezkoetik lauk ikaskuntza-jarduerak egin dituzten urtean, zehazki, 2008 eta 2018 artean jarduera horiek egin dituzten pertsonen batez besteko gisa.

- Atxikitako grafikoak erakusten du proportzio hori pixkanaka gorantz doala; izan ere, % 37koa eta % 36koa izan da emakumeentzat eta gizonezkoentzat hurrenez hurren 2008-2010 aldiko batez bestekoa hartuta eta % 40ra iristen da 2017 eta 2018 aldiko batez bestekoan.
- Tarteko urteetan lortutako emaitzek aurrera egite hori berretsi dute; horrela, bi taldeek etengabeko hobekuntza berretsi dute bizitza osoko ikaskuntzako jardueren parte-hartzean.


Emaitza horiek erakusten dutenez, emakumeen eta gizonen artean,

- Aintzat hartutako lehen hiru urte multzoetan (2008-2010, 2011-2013 eta 2014-2016) gizonen parte-hartze tasa emakumeen taldean erregistratutakoa baino zertxobait altuagoa da, baina adierazgarria ez den aldearekin (ehuneko 2-3 puntu). Hala ere, adierazgarria da alde hori egotea, mantentzea eta emakumeentzako zertxobait okerragoa izatea.
- Hala eta guztiz ere, azken biurtekoan alde hori murriztu egin da eta ikaskuntzako parte-hartze tasak antzekoak dira bi taldeentzat eta % 40an kokatzen dira emakumeentzat eta gizonentzat.

Emaitza hori finkatu bitartean, ondoriozta daiteke Gipuzkoako biztanleria helduaren, emakumeen eta gizonen, ikaskuntza-jardueretan, parte-hartze tasa bateratzen ari dela.

## 2. grafikoa Gipuzkoan ikasten duten pertsonen bilakaera, sexuaren arabera

Biztanleria helduaren gaineko %, 25-74 urte



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua

Bistakoa denez, aztertutako aldiaren zehar,

- Gipuzkoan, generoaren araberako biztanleria helduaren osaera ez da aldatu. Genero bakoitzerako ia % 50eko parte-hartzea du.
- Hala eta guztiz ere, hamarkada honetan, Gipuzkoako 25-74 urte arteko pertsona taldea aldatzen ari da (adinarengatik, pertsona berriak sartu eta beste batzuk irteten dira). Hori dela eta, zein dira ikaskuntzan pertsonen parte-hartzean hobekuntza azaltzen duten pertsonen ezaugarriak?

## 1 taula Gipuzkoako biztanleria helduaren bilakaera (25-74 urte), generoaren arabera

	2008-2010	2011-2013	2014-2016	2017-2018
<b>Guztira, 25-74 urte /Total, 25-74 años</b>	473.499	471.771	470.869	468.506
Emakumeak / Mujeres	235.953	235.704	235.692	235.300
Gizonak / Hombres	237.546	236.524	235.177	233.206
<b>Banaketa / Distribución (%)</b>				
Emakumeak / Mujeres	49,8	50,0	50,1	50,2
Gizonak / Hombres	50,2	50,1	49,9	49,8

Iturria: Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsua, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak eta Biztanleen Udal Estatistika, Eustat



## 2.3. Ikasten duten pertsona helduak, adin taldeen arabera.


### Ikaskuntza-jardueretako parte-hartzea beherantz doa pertsonen adinak gora egin ahala

Atxikitako grafikoak bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan pertsonen parte-hartzea biltzen du, adinaren arabera, betiere. Argi ikusten da aztertutako aldian:

- 25-34 urte arteko hamar pertsona heldutatik bostek ikaskuntza-jarduerak egin dituzte azken urtean; proportzio horrek hamar pertsonatik laura egiten du behera 34-44 urte arteko taldean.
- 45-64 urte arteko pertsonen taldeak parte-hartze tasa zertxobait baxuagoa erakusten du eta hamar pertsonatik hiruk adierazi du ikasi duela.
- 65 eta 74 urte artean dituzten hamar pertsonatik 1-2 pertsonak egiten dituzte ikaskuntza-jarduerak.

### 3. grafikoa Gipuzkoan ikasten duten pertsonen bilakaera, adinaren arabera

Biztanleria helduaren gaineko %, 25-74 urte




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

Horrela, ikusten da pertsonen parte-hartze tasa nabarmen altuagoa dela helduen arteko gazteenen tartean, hau da, 25-44 urte artean dituzten pertsonetan. Atxikitako grafikoak azken lau urteetako emaitzak erakusten ditu eta hamar urteko adin tarte bakoitzean lortutakoak zehazten dira.

#### 4. grafikoa Gipuzkoan ikasten duten pertsonen bilakaera, adinaren arabera 2008-2018

Biztanleria helduaren gaineko %, 25-74 urte



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

Emaitza horiek bi gertaera ikustea ahalbidetzen dute:

- Batetik, ikaskuntza-jardueretan, parte-hartzearen galeraren profila, pertsonen adinak gora egin ahala, mailaz mailakoa da; izan ere, hamar urteko adin talde bakoitzean beherantz egiten du.
- Bestalde, 45-64 urteko taldearen emaitzek, hura osatzen duten hamar urteko bi adin taldeetan bereizita (45-54 urte eta 55-64 urte), beheranzko profil hori berresten dute. Talde gazteenen artean balio handiagoa dute (45-54 urte, % 48,2, % 50,0, % 44,2 eta % 42,4 adinez nagusiagoak direnen artean baino (55-64 urte, % 21,8, % 27,7, % 31,9 eta % 29,4ko balioekin).

Horrekin guztiarekin, nabarmendu behar da nolabaiteko arraila egon arren, badirudiela azken bi urteetan arraila hori laburtzen ari dela.

- Azken finean, agerian geratu da bizitza osoko ikaskuntzaren tasari dagokionez, emaitzarik onena biztanleria helduaren talde gazteenean dagoela; talde horretan bilduko lirateke 25-34 eta 35-44 urte arteko taldeez gain, 45-54 urte arteko taldea ere.

Eta ebaluazio honetan, nola eragiten du Gipuzkoako biztanleria helduaren osakeraren bilakaerak adin taldeen arabera? Atxikitako koadroak biztanleria helduaren bilakaera biltzen du adin taldeen arabera. 2008-2011 (hasiera) eta 2016-2019 (aldiaren amaiera) aldiei dagozkien batez besteko balioak hartzen dituzte aintzat eta hau erakusten dute:

- 2008-2011 eta 2016-2019 artean, Gipuzkoak biztanleria heldua galdu du, zehazki, 4.993 pertsona gutxiago (% -1,1).
- Bi segmentu gazteetan biltzen den atzerakada da. Garrantzia galdu dute (% 21etik eta % 24,2tik % 14,8ra eta % 22,6ra, 25-34 eta 35-44 urtekoetan, hurrenez hurren) adinez nagusiagoko bi taldeen mesedetan (% 22,1 eta % 19,0tik % 24,1era eta % 21,1era, 45-54 eta 55-64 urtekoetan, hurrenez hurren); Lurraldearen egitura demografikoaren zahartzea erakusten du horrek.

Nola ari dira aldatzen talde bakoitzaren ezaugarriak Lurraldeko bizitza osoko ikaskuntzaren tasa orokorrak gora egin duela kontuan hartuta?

**2 taula**      **Gipuzkoako biztanleria helduaren bilakaera (25-74 urte), adin taldearen arabera**

	2008-2010		2016-2019	
	Nº	%	Nº	%
<b>Guztira, 25-74 urte / Total, 25-74 años</b>	473.499	100,0	468.506	100,0
<b>25-34 urte / 25-34 años</b>	99.258	21,0	69.328	14,8
<b>35-44 urte / 35-44 años</b>	114.391	24,2	105.779	22,6
<b>45-54 urte / 45-54 años</b>	104.583	22,1	112.749	24,1
<b>55-64 urte / 55-64 años</b>	89.793	19,0	98.847	21,1

Iturria: Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsua, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak eta Biztanleen Udal Estatistika, Eustat.

## 2.4. Ikasten duten pertsona helduak, egindako ikasketa mailaren arabera


### Ikaskuntza-jardueretako partaidetzak gora egiten du egindako ikasketa mailaren arabera

Atxikitako grafikoak helduek ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartze tasa biltzen du, prestakuntza arautuko prozesuaren baitan lortutako ikasketa mailaren arabera. Honako hau erakusten dute:

- Goi mailako prestakuntza duten hamar pertsona heldutatik seik ikasi egin du azken urtean. Proportzio hori hamar pertsonatatik hiruren artean gertatzen da bigarren mailako ikasketak (orokorrak nahiz lanbide-ikasketak) dituztenen artean, eta hamar pertsonatatik biren kasuan gertatzen da lehen mailako ikasketak dituztenen artean.
- Proportzio horiek ia ez dira aldatu aintzat hartutako aldian zehar; hori dela eta, argi eta garbi erakusten dute ikaskuntzan parte hartzeko faktore garrantzitsua dela lortutako ikasketa maila.

### 5. grafikoa Gipuzkoan ikasten duten pertsonen bilakaera, ikasketa mailaren arabera


Biztanleria helduaren gaineko %, 25-74 urte



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua.

Zer aldatu da Gipuzkoan? Atxikitako grafikoak erakusten duen moduan, pertsonen ikasketa mailan izandako hobekuntza da garrantzitsuena<sup>3</sup>: 2010 eta 2018 artean gora egin du goi mailako ikasketak dituzten ikasleak ez diren pertsona helduen kopuruak (ehuneko +3,8 puntu), baita bigarren mailako ikasketak dituztenenak (ehuneko +0,1 puntu) eta profesionalenak ere (ehuneko +3,8 puntu. Horiek lehen mailako ikasketak dituzten pertsona taldearen garrantziaren galera konpentsatzen dute (ehuneko -7,7 puntu).

**6. grafikoa Gipuzkoako pertsona helduak (ikasleak ez direnak) lortutako ikasketa mailaren arabera. 2010 eta 2018.**



*Iturria: Hezkuntza arloko Udal Estatistika (Eustat)*

Eta zehatzago begiratu, ikasketa maila handieneko pertsonen sarrerarekin eta normalean ikaskuntza maila txikiagoa duten adineko pertsonen irteerarekin lotutako mailaz mailako aldaketa da.

<sup>3</sup> Hezkuntzaren Udal Estatistikak (Eustat) emandako informazioa. Aztertutako aldiaren hasieratik eta amaieratik gertuen dauden bi urteak hartzen dira erreferentzia gisa.

Hori da bigarren faktore garrantzitsua; izan ere, pertsona helduek bizitza osoko ikaskuntzan parte hartzeak adinaren aldagaia konbinatzen du (zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta parte-hartze handiagoa) ikasketa mailarekin batera (zenbat eta ikasketa maila handiagoa izan, orduan eta parte-hartze tasa handiagoa).

Hori da Gipuzkoak 2008 eta 2018 artean erregistratzen duen bigarren aldaketa nagusia. Bertan, ikasketa maila txikiak dituzten gazteen garrantziaren jaitiera berresten da, baita adin talde guztietako goi mailako ikasketak<sup>4</sup> dituztenen garrantziaren igoera ere.

**3 taula** Ikaslea ez den Gipuzkoako biztanleria helduaren osaera, lortutako ikasketa mailaren eta adinaren arabera. 2010 eta 2018.

	2010			2018		
	Lehen mailakoak / Primarios	Bigarren mailakoak / Secundarios	Goi mailakoak / Superiores	Lehen mailakoak / Primarios	Bigarren mailakoak / Secundarios	Goi mailakoak / Superiores
<b>Guztira, 25-74 urte /Total, 25-74 años</b>	178.616	172.206	108.966	140.249	186.055	124.038
<b>25-34 urte / 25-34 años</b>	15.172	42.981	34.408	5.096	31.874	24.059
<b>35-44 urte / 35-44 años</b>	30.079	46.650	34.877	19.960	45.646	39.187
<b>45-54 urte / 45-54 años</b>	37.158	42.312	23.688	31.681	45.947	31.829
<b>55-64 urte / 55-64 años</b>	48.819	28.566	11.294	36.385	39.174	19.981
<b>Banaketa horizontala, % / Distribución horizontal, %</b>						
<b>Guztira, 25-74 urte /Total, 25-74 años</b>	38,8	37,5	23,7	30,5	40,5	27,0
<b>25-34 urte / 25-34 años</b>	16,4	46,4	37,2	5,5	34,4	26,0
<b>35-44 urte / 35-44 años</b>	27,0	41,8	31,3	17,9	40,9	35,1
<b>45-54 urte / 45-54 años</b>	36,0	41,0	23,0	30,7	44,5	30,9
<b>55-64 urte / 55-64 años</b>	55,1	32,2	12,7	41,0	44,2	22,5
<b>Banaketa bertikala, % / Distribución vertical, %</b>						
<b>Guztira, 25-74 urte /Total, 25-74 años</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<b>25-34 urte / 25-34 años</b>	8,5	25,0	31,6	3,6	17,1	19,4
<b>35-44 urte / 35-44 años</b>	16,8	27,1	32,0	14,2	24,5	31,6
<b>45-54 urte / 45-54 años</b>	20,8	24,6	21,7	22,6	24,7	25,7
<b>55-64 urte / 55-64 años</b>	27,3	16,6	10,4	25,9	21,1	16,1

Iturria: Hezkuntza arloko Udal Estatistika (Eustat)

<sup>4</sup> Eta bigarren mailako -profesionalena; adinez nagusiak diren bi taldeetan.

## 2.5. Ikasten duten pertsona helduak, ordaindutako lan-merkatuan parte-hartzearen arabera

Pertsona helduek ordaindutako lan-merkatuko parte-hartzearekin bat etorritik, ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartze tasa biltzen du atxikitako taulak. 2008 eta 2018 artean, 2009 eta 2014 artean bizi izandako atzeraldi ekonomikoaren eta enplegu-atzeraldiaren fasea biltzen da, baita ondorengo susperraldia ere, 2015etik aurrera hasitakoa. Honako hau erakusten du:

- Krisi fasean, 2008-2010 eta 2011-2013, lanean ari ziren edo langabezian zeuden hamar pertsonatatik lauk ikasi egin zuen. Proportzio hori hamar pertsonatatik bostekoa izan zen 2017-2018 artean lanean zeudenen artean. Hau da, enplegua suspertzea, era berean, ikaskuntza bultzatzeko faktorea da pertsona helduen artean.


- Bestalde, erretiroa hartuta edo beste egoera batean dauden pertsonen parte-hartzea zertxobait baxuagoa da eta talde horietako bakoitzeko hamar pertsonatatik 1 edo 2 inguruan geratzen da.

Erretiro-egoera<sup>o</sup> aipatzen duen taldearen artean, hobekuntza nabari da aintzat hartutako aldiaren. Pertsonen ikasketa mailan izandako gorakadak azaldu dezake hori.

- Proportzio horiek guztiz egonkorak dira denboran –nahiz eta profil leuna izan– eta lan-jardueraren garrantzia berresten dute –lanean ari diren eta langabezian dauden pertsonena– bizi osoko ikaskuntza-jarduerak bultzatzen dituen faktore gisa.

Gertaera hori enplegu-kalitatearen osagaiarekin lotzen da; ildo horretatik, profil okupazional ia guztiek prestakuntza gehiago eta hobea eskatzen dute eta prestakuntza hori modu egokian eguneratu dadila. Oraingo eta etorkizuneko lanen garapenean lehiakortasuna (pertsonala) mantentzeko modua dela uste da.


**7. grafikoa Gipuzkoan ikasten duten pertsonen bilakaera, lan-egoeraren arabera 2008-2019**



*Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua*

Atxikitako grafikoa denbora-une bakoitzean enpleguaren batez besteko balioak biltzen ditu eta izan berri den krisiaren inpaktua –enplegu-galera handiarekin– eta susperraldiko azken hirurtekoa erakusten ditu.

**8. grafikoa Enpleguaren bilakaera Gipuzkoan, 2008-2018**



*Iturria: Kontu Ekonomikoak eta Hiru Hilez Behingo Kontu Ekonomikoak (Eustat) I.*



Hain zuzen ere, 2017-2019 aldiko batez besteko enplegua 322.890 pertsonatara<sup>5</sup> iritsi da. Horrek esan nahi du hasierako hirurtekoarekin (2008-2010) alderatuta, azkar berreskuratu dela, krisiaren lehen inpaktua hirurteko horretan izan baitzen. Horrekin guztiarekin, 2008an, 330.842 pertsonak izan zuten enplegua, eta 2019an, 329.350 pertsonak. Hori dela eta, oraindik ez da guztiz berreskuratu krisialdian galdutako enplegua.

**4 taula      Jarduera-tasa, okupazioa eta langabezia, Gipuzkoan pertsonen ikasketa mailaren arabera**

	2008	2011	2015	2019
<b>Jarduera tasa; guztira</b>				
<b>Tasa de actividad; total</b>	<b>57,2</b>	<b>56,9</b>	<b>57,7</b>	<b>56,7</b>
Lehen maila eta gutxiago Primarios y menos	20,8	19,8	39,3	36,7
Bigarren mailakoak Secundarios y medios	71,7	68,5	62	58,6
Goi mailakoak Superiores	76,9	78,8	82,1	81,4
<b>Okupazio tasa; guztira</b>				
<b>Tasa de ocupación; total</b>	<b>55,4</b>	<b>52,2</b>	<b>50,2</b>	<b>52,6</b>
Lehen maila eta gutxiago Primarios y menos	20,5	18,6	32,7	32,9
Bigarren mailakoak Secundarios y medios	68,7	61,8	53,2	53,8
Goi mailakoak Superiores	75,3	73,7	75,1	77,8
<b>Langabezi tasa; guztira</b>				
<b>Tasa de paro; total</b>	<b>3,3</b>	<b>8,2</b>	<b>13,0</b>	<b>7,2</b>
Lehen maila eta gutxiago Primarios y menos	1,8	6,1	16,8	10,3
Bigarren mailakoak Secundarios y medios	4,2	9,7	14,1	8,1
Goi mailakoak Superiores	2,1	6,5	8,5	4,4

Iturria: PRA, Eustat.

Horrekin guztiarekin, bizitza osoko ikaskuntza-jarduerarekin lotuta, eta motibazioan enpleguak duen erakartzeko gaitasuna kontuan hartuta, honako hau ondorioztatzen da:

- 2008an ikaskuntza-tasa (% 36) 2018an baino baxuagoa da (% 40), nahiz eta enplegu-bolumen handiagoa izan (330.842 enplegu, 324.077 lanposturen aurrean, lanaldi osoari dagokionez hurrenez hurre).

<sup>5</sup> Aldagaia honako hau da: lanpostuak lanaldi osoko baliokidetasunean.

- Bestalde, jarduera-tasa<sup>6</sup> % 57,2 (2008) eta % 56,7 (2019) artekoa da; hau da, Gipuzkoako 16 urte eta gehiagoko biztanleriari dagokionez, pertsona aktiboen proportzioa beherantz doa zahartzea dela eta.
- Gainera, okupazio-tasa<sup>7</sup> % 55,4 (2008) eta % 52,6 (2019) artekoa da, lanean ari diren pertsonen proportzioa txikiagoa delako, langabeziak garrantzi handiagoa duelako (% 3,3tik % 7,2ra) eta zahartze-osagaia dela eta.
- Horrekin guztiarekin, erreferentziazko lau urteetan, okupazio-tasek gorantz egiten dute pertsonen ikasketa mailak gora egin ahala. Gainera, 2019an, tasa hori handiagoa da goi mailako ikasketak dituzten pertsonen artean (% 75,3tik % 77,8ra) eta beherantz egiten du bigarren mailako eta lehen mailako ikasketak dituztenen artean 2008rekin alderatuta.

Azken finean, 2008 eta 2019 artean, Gipuzkoak enplegua berreskuratu du (krisiaren aurreko etapari dagokionez guztia izan ez arren). Egia esan, lan egiten duten pertsonen ikasketa maila handiagoa dute; hori dela eta, bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko probabilitate handiagoa duen taldea da.

---

<sup>6</sup> Talde baten jarduera-tasa deitzen zaio biztanleria aktiboa osatzen duten talde horretako pertsonen proportzioa dela eta (Eustat)

<sup>7</sup> Talde baten okupazio-tasa deitzen zaio biztanleria okupatua osatzen duten adin talde horretako pertsonen proportzioa dela eta (Eustat)



Izenburua:	Bizitza osoan zehar ikasi eta ikasten duten pertsonak, 2008-2018 68. dokumentua, 2020ko apirila
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
Lantzea	IKEI, research & consultancy S.A.
Informazio iturriak	Eustat, Lanbide